

OSASUN ITURRIAREN KALEKO BIZILAGUNEN SEGURTASUNAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko irailaren 19an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzaren 18an Osasun Iturriaren kaleko 16.eko bizilagunek idatzi bat aurkeztu zuten udalinfo zerbitzuan. Bertan adierazten zuten, argazki sorta baten bidez, beraien etxea harrizko horma baten kontra eraikita zegoela eta horrek hainbat arazo sorrarazten zituela.

Alde batetik, etxeko patioan segurtasun arazo larriak dituzte, hormatik harriak eta enbor zatiak erortzen direlako, eta, bestetik, hormaren gainean dauden beste etxebizitzetan (Amarako Gaina kalekoak) arrailak ateratzen hasi direla antzeman dutela.

Bizilagunek aurkeztu zuten txostenean laguntza eskatzen zioten Udalari, hormaren konponketa zeini dagokion argitzeko eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartzeko. Aurkeztutako argazkietan argi adierazten da patioaren egoera oso arriskutxua dela bizilagunentzat, bertara erortzen diren harriak eta enborrak direla eta. Bizilagunek patioaren erabilpena saihestu duten arren, nahitanahiez atera behar dira patiora uraren kontandoreak bertan daudelako edo konponketak egiteko, horrek suposatzen duen arriskuarekin.

Gure udal taldeak gai honen inguruko informazioa begiratu zuenean, 2006ko txosten bat aurkitu zuen. Txostenean teknikari batek hurrengo adierazten du: *se plantea la necesidad urgente del arreglo del muro y talud, procediendo a su limpieza y consolidación del mismo, ya que existe un grave peligro para los vecinos.*

Ekaineko batzordeetan galdera bat luzatu genion Hirigintzako zinegotziari gai honen inguruan eta hark erantzun zigun *ez zuela bizilagunen eskaera ezagutzen, baina aste horretan bertan (asteazkenean) joango zela egoera zein zen ikustera bere departamentuko zuzendariarekin batera.*

Dagoeneko hiru hilabete joan direnez eta bizilagunek ez dutenez zinegotzi ordezkariaren edo teknikarien berririk izan, iraileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen. Zinegotzi ordezkariak barkamena eskatu zuen bizilagunekin harremanetan ez jartzeagatik eta urteetako arazo bat zela aipatu zuen. Bere hitzetan, teknikariek diote harrizko horma Udalarena izan daitekeela, baina ez zuen zehaztu zein neurri planteatzen diren edo bizilagunekin hitz egin duten ala ez. Zehaztasun falta nabaria eta kezagarria da.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari hiritarrek aurkezten dituzten eskaerei erantzuna ematea; batez ere eskaera horiek pertsonen segurtasunarekin lotuta daudenean.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala zein neurri hartuko dituen Udalak harrizko hormaren egoera hobetzeko, Osasun Iturriaren kaleko bizilagunek beraien patioak erabiltzerakoan arriskurik izan ez dezaten.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia